

# Galdegai-lekua testu-hastapenetan (eta II) (*Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira liburuan*)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Bigarren artikulu honetan, lehenengoan legez, helburu bi dauzkat: batetik, eta nagusizat, Sebero Altubek emaniko legea galdegaiari buruz —galdegaia paratu behar da aditz aurrean— ez dela egokia hasiera-perpau-setan (aztertuko dut zenbatetan betetzen den legea eta zenbatetan ez); bigarren helburutzat, sekundariotzat, gura dut manipulatatu hasiera-perpau-sak, beste hurrenkera batean sekuentziatu osagaiak, tokiz aldatu batez ere aditza eta galdegaia; eta, horrela, aztertu zeintzuk sekuentzia, osagai hurrenkera, irakurtzen diren errazen edo nekezen, eta zergatik. Baina bigarren artikulu honetan, beste liburu bat daukat aztergai: *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, J. I. Iztuetak idatzia, M. J. Ezeizabarrenak atondua eta Euskal Editoreen Elkarteak argitaratua.

The purpose of this paper is twofold. First and most important it is about the rule set by Sebero Altube in relation to word order —the focus should precede the verb— which is questioned by the author when it applies to beginning sentences in a text (it will be analysed when the rule is fulfilled and when is not). The second purpose, which is secondary, is to manipulate word order in a sentence, mainly the verb and the focus, and analyse which sentence is easier to read. The texts presented in this second article have been taken from the following book: *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia* written by J. I. Iztueta, adapted by M. J. Ezeizabarrena and published by Euskal Editoreen Elkarte.

## 0. Sartaurrea

Arinagoko artikuluan aztertu nuen *Horrela bizi bagina beti* liburuan galdegaiak zer leku hartzen duen bertako narrazio-hasieretan, lehenengo perpause-tan: aditz aurrekoa edo atzekoa. Artikulu honetan ere beste liburu bat jorratuko dut, *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, eta hemen ere aztergai izango dut idazleak non erabiltzen duen galdegaia narrazioetako hasiera-perpau-setan: aditz aitzinean edo gibelean.

Bittor Hidakok *Senez* aldizkarian, azken alean (25. zenbakia), aztertu du galdegaiak zer kokagune hartzen duen perpaus barruan bai tradizioko euskaran bai gaur egunekoan, eta hona hemen emaitzak:

### Galdegaiaren kokagunea

	Aditz ostean	Aditz aurrean	Bestela
Tradizioko euskaran	79,0%	10,8%	10,2%
Gaurko euskaran	20,1%	51,2%	28,7%

Kontuan hartuta datuok, Altuberren galdegaiaren legea ustela gertatzen da, eta B. Hidakok beste proposamen bat egiten du. Hona hemen lege hori, txarto ulertu ez badut:

1. Galdegaia aditz aurrean erabiltzea, galdegaia laburra bada batez ere.
2. Galdegaia aditz atzean erabiltzea, galdegaia luzea bada batez ere.

Aurreko artikuluan bezala honetan ere helburu bi ditut zein baino zein garrantzi-tsuagoak (nahiz eta itxura batean bakarra izan):

1. Erakutsi gura dut zelako ustela den Altuberren legea *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia* liburuan (J. I. Iztuetak idatzia) hasiera-perpau-setan.

2. Manipulatu gura ditut hasiera-perpausok, beste kokaleku batzuk eman aditzari eta galdegaiari; eta aztertu, operaziook zelan eragiten dioten perpausen komunikazioari: zein osagai-hurrenkera irakurtzen den errazago eta nekezago, eta zergatik.

Aurreko artikuluan ez legez, hemen ez ditut sartuko hango atal bi: batetik, *abantailak galdegaia aditz atzean erabilia* eta bestetik, *argibideak*. Hortaz, zuzenean hasiko naiz *adibideak aztertzen* ataletik eta, gero, *konklusioak* atala emango dut.

## 1. Adibideak aztertzen

Liburu aztergaia liburu biz dago osatuta, eta artikulua honetan jorratuko dut lehenengo liburuaen parte bat, hirugarrena (denetara 57 perpaus aztergai). Aztertu beharrezko parte kontakizunez osatuta dago (zenbaki bidez adieraziak), bakoitzak dauzkala atal bat edo gehiago. Kontakizunok euskara batuan ipini ditut ahalean, aditzak kortxete artean eta galdegaia azpimarratuta.

Hel diezaioan lehenengo kontakizunari:

### 1. GIZON DANTZAREN IRAKASTEA

Gizon dantzak [irten behar du] plaza agerikora Herriko etxeko gelatik, danbolinaren soinuan. (145. or.)

#### **Oharkera edo adbertentzia dantza zerbitzaileei, eta neskatxak dantzara...**

Dantza zerbitzaileak beti [esan behar dio] dantzarako deitua den neskatxari, noren eskura joan behar duen; (150. or.)

#### **Zubien senaera edo significazioa**

Gure asaba maitagarriak izanik hain gizon zentzu handikoak, prestuak, eta behartsuak edo errespetableak, [ez zuten ikusi nahi izan] beren artean, behin ere, supitxa gaiztoko gizonik, eta hain gutxi, doilor prestuezik. (151. or.)

Goiko hiru hasiera-perpausetatik hirugarrena ez dut jorratuko, ezezka dago eta. Beste bietan lehenengotik hasiko naiz. Ez du betetzen galdegaiaren legea. Horren arabera honela beharko luke perpausak:

Gizon dantzak plaza agerikora [irten behar du] Herriko etxeko gelatik, danbolinaren soinuan.

Aldaera horretan aditza atzerago dago jatorrizko perpaus bano, eta horrek esan gura du nekezxoago irakurtzen dela; baina huskeriazko aldea dago, aditza aldaeran ere hur dago-eta perpaus-hasieratik.

Bigarren hasiera-perpaus bano betetzen da Altuberaren legea, zeinak baitio galdegaia aditz aurrean paratu behar dela, berari inkatuta. Perpausa dagoenean ezin hobeto dago, eta ez nuke galdegaia aditz ostera eroango. Askotxok, ostera, NORI sintagma aditz aurrera eroango lukete; eta hori dela-eta, lorrindu egingo lukete perpausa (nekezago irakurriko litzateke):

Dantza zerbitzaileak dantzarako deitua den neskatxari beti [esan behar dio], noren eskura joan behar duen

Ora diezaiogun bigarren kontakizunari:

### 2. GAZTE DANTZA

Gauza jakina [da] zaharrek egin ohi dituzten jostaketak, gazteak irudikatu nahi izatea. (155. or.)

Ez dakit egoki markatu ditudan zein den aditza eta zein galdegaia. Edozein modutan, ezin hobeto dago perpausa dagoenean, eta edozein aldatuk, nik uste, lorrindu egingo luke perpausa.

Pasa gaitezen 3. kontakizunera:

### 3. ETXEANDRE DANTZA

Dantza mota oniritzi hau [da], jostailua bukatu-rik, auzo herrietako jendea etxeratzean lehendabiziko arratsaldean, herri bereko etxeandre prestuek egiten dutena, (156. or.)

Perpausak ez du betetzen galdegaiaren legea; eta, gainera, galdegaia aditzetik asago dago, urrun, azkeneko lekuan. Ipiniko bagenu aditza galdegai atzean astakeria egingo genuke komunikazioaren aldetik:

Dantza mota oniritzi hau, jostailua bukatu-rik, auzo herrietako jendea etxeratzean lehendabiziko arratsaldean, herri bereko etxeandre prestuek egiten dutena [da]

Idazlearen baimenaz ahaleginduko naiz beste era batzuetan adierazten. Hona hemen modu bat:

Jostailua bukatu-rik, auzo herrietako jendea etxeratzean lehendabiziko arratsaldean, dantza mota oniritzi hau [da], herri bereko etxeandre prestuek egiten dutena,

Edo:

Jostailua bukatu-rik, auzo herrietako jendea etxeratzean lehendabiziko arratsaldean, dantza mota oniritzi hau herri bereko etxeandre prestuek egiten dutena [da],

Bigarren aldaera, betetzen duela Altuberren legea, gaitzago irakurtzen da azkenurrekoa baino, aditza gehitxo atzeratuta dauka-eta. Beste aldaera bat ere proposatuko dut, IZAN aditza eta erlatiboa kenduta:

Jostailua bukatu-rik, auzo herrietako jendea etxeratzean lehendabiziko arratsaldean, dantza mota oniritzi hau herri bereko etxeandre prestuek [egiten dute],

Nik aldaera horretan —nekagarritxoa irakurtzeko— galdegaiaren legea errespetatu egin dut, baina lztuetak honela idatziko zukeen:

Jostailua bukatu-rik, auzo herrietako jendea etxeratzean lehendabiziko arratsaldean, dantza mota oniritzi hau [egiten dute] herri bereko etxeandre prestuek

Perpausaren azkenaldea pasa daiteke aurrera, jatorrizko perpausaren legez:

Dantza mota oniritzi hau[egiten dute] herri bereko etxeandre prestuek, jostailua bukatu-rik, auzo herrietako jendea etxeratzean lehendabiziko arratsaldean,

Begitantzen zait azken aldaera hori jatorrizko perpausa bezain ondo dagoela antolatuta, edo hobeto.

Igaro gaitezen ondoko kontakizunera:

#### 4. ESKU DANTZA GALAIENA BEHAR BEZALA EGITEKO IRAKASTEA

Plazan aurkitzen direnean zaldun gazteren batzuk dantzatu nahian, eta gizon dantza ateratzeko behar hainbat lagun osatzen direla, [esaten diote] danbolinari jo dezala esku dantza, (156. or.)

Galdegai (perpau konpletiboa) aditz gibelean dago; eta, horrela, taket, muzin egiten dio galdegaiaren legeari, baina bikain dago. Galdegai aditz ostera eroango bagenu, lorrindu egingo genuke perpausa, lardaskatu, nekeztxoago irakurriko bailitzateke:

Plazan aurkitzen direnean zaldun gazteren batzuk dantzatu nahian, eta gizon dantza ateratzeko behar hainbat lagun osatzen direla, danbolinari jo dezala esku dantza [esaten diote]

Azter dezagun hurrengo kontakizuna:

#### 5. ESKU DANTZA NESKATXENA NOLA EGIN IRAKASTEA

Neskatxa ongi dantzan dakien bat edo beste aurkitzen denean plazan, bere dantzako jakinduria agertu nahikoa, [gaztigatuko dio] danbolinari jo dezala esku dantzaren soinua, (157-158. orr.)

##### **Danbolinai irakastea, esku dantza soinua nola jo behar dioten**

Esku dantza irtetea, [jo behar ditu] danbolinak hasierako zortziko txit ezagun, leun, garbi, denbora honetarako antzinako gure guraso jakintziak jarri izan zituztenak, (159. or.)

Perpau aztergai bi ditugu. Lehenengoan galdegai (perpau konpletiboa) aditz ostean dago. Ipiniz gero aditzaren aurrean honetara geratuko litzateke:

Neskatxa ongi dantzan dakien bat edo beste aurkitzen denean plazan, bere dantzako jakinduria agertu nahikoa, danbolinari jo dezala esku dantzaren soinua [gaztigatuko dio],

Aldaera hori zailago prozesatzen da jatorrizko perpausa baino, aditza gibelera-go dauka-eta. Bigarren perpau aztergai galdegai, ezin luzeagoa, aditz atzean dago, ondo egon ere, nire ustez. Galdegai eroan izanez gero bere leku kanonikora, perpausa geratuko litzateke bihurri-bihurria, nekagarria irakurtzeko:

Esku dantza irtetea, danbolinak hasierako zortziko txit ezagun, leun, garbi, denbora honetarako antzinako gure guraso jakintziak jarri izan zituztenak [jo behar ditu]

Azter dezagun hurrengo kontakizuna:

#### 6. EDATE EDO KARRIKA DANTZA

Dantza mota hau [egiten da] herrietako Done godartari edo Santu patroien egunetan, baita ere diakinde edo funtzio handiak dituztenean, (160. or.)

##### **Dantza honen senaera edo betekizuna**

Dantza atsegingarri hau, edateko soinu pozkidatsua hasi bezain laster, [irteten da] karrika guztiak barrena oihuz eta irrintzika, saltoka eta gora oinka edo brinkoka, aditzera ematen diotelarik herri leialari, guztiz asko nahikidatu dutena beraren prestutasunezko eskainia. (160. or.)

Lehenengo perpaus aztergaian hautsi egiten da galdegaiaren legea, galdegaia aditz atzean baitago. Askotxok honela idatziko lukete:

Dantza mota hau herrietako Done godartari edo Santu patroien egunetan [egiten da], baita ere diakinde edo funtzio handiak dituztenean,

Zertan esanik ez dago: jatorrizko perpausa errazago irakurtzen da aldaera baino, aditza (perpausaren informazio gunea) aurrerago dago eta. Bigarren perpausaren kontu bi jazotzen dira: batetik, aditz aurrean ez dago elementurik; bestetik, galdegaia ez dago aditzaren osteko lehenengo kokalekuan, bigarrenean baino. Galdegaia leku kanonikoan paratuz gero, honela geratuko litzateke perpausa:

Dantza atsegingarri hau, edateko soinu pozkidatsua hasi bezain laster, karrika guztiak barrena oihuz eta irrintzika, saltoka eta gora oinka edo brinkoka [irteten da], aditzera ematen diotelarik herri leialari, guztiz asko nahikidatu dutena beraren prestutasunezko eskainia.

Nekagarri-nekagarria da. Arindutxoa eman dakioko *karrika guztiak barrena* osagarria aditz atzera eroanda:

Dantza atsegingarri hau, edateko soinu pozkidatsua hasi bezain laster, oihuz eta irrintzika, saltoka eta gora oinka edo brinkoka [irteten da] karrika guztiak barrena, aditzera ematen diotelarik herri leialari, guztiz asko nahikidatu dutena beraren prestutasunezko eskainia.

Jorra dezagun hurrengo kontakizuna:

## 7. EZPATA DANTZA

Ezpata dantza gogoangarri hau [da], denbora guztietan beti gipuzkoarrek txit maite izan eta izango dutena; (162. or.)

### **Ezpata dantzariet, irakastea**

Ezpata dantzariet [behar dute] beren buruzaria edo kapitana, eta ez du honek ezpata beharrik. (163. or.)

### **Zubi hau noiz eta nola egin behar den irakastea**

Buruzaria, lehenago esan dudana bezala, esku batetik bestera ezpatak aldairaturik jartzen denean, dantzarietara begira [igaro behar dute] elkarrekin, erakutsi dudana modu berean, lau endanaetakoek: (165. or.)

### **Zubi horiet egiten, laster eta erraz erakusteko irakastea edo instruzioa**

Buruzariak [ipini behar ditu] ezpata dantzariak ongi begiraturik, bereizten dituela galairik egokienak bazter bietako endanaean ipintzeko, eta txiki eta maiskar aurkienak, erdiko bietarako. (168. or.)

## Danbolinai irakastea edo instruzioa ezpata dantza nola jo

Ezpata dantzariak Herriko etxetik irtetean [jotzen da], beraren zortziko txit ezagun bat, gizon dantzaren hasierako soinuan bezala arratza jotzen duela. (168. or.)

Hor bost perpaus aztergai ditugu. Lehenengoan galdegaia aditz atzean dago. Ipinita bere leku kanonikoan honela geratuko litzateke:

Ezpata dantza gogoangarri hau denbora guztietan beti gipuzkoarrek txit maite izan eta izango dutena [da],

Ezin okerrago dago horretara, nahiz eta bete galdegaiaren legea. Badago beste modu batean ere ematerik, kenduta IZAN aditza eta erlatiboa:

Ezpata dantza gogoangarri hau denbora guztietan beti gipuzkoarrek txit [maite izan eta izango dute],

Ez dakit igarri dudan aldaera horretan adierazten zein den aditza eta zein galdegaia. Beste era batera ere para daiteke errazago (aditza aurreratuta):

Ezpata dantza gogoangarri hau txit [maite izan eta izango dute] denbora guztietan beti gipuzkoarrek,

Edo:

Ezpata dantza gogoangarri hau txit [maite izan eta izango dute] gipuzkoarrek denbora guztietan beti,

Edo:

Ezpata dantza gogoangarri hau gipuzkoarrek txit [maite izan eta izango dute] denbora guztietan beti,

Azkeneko biak ditut nahien. Hurrengo perpaus aztergai bietan ere hankaz gora geratzen da galdegaiaren legea. Honela emango lituzkete askok:

-Ezpata dantzariak beren buruzaria edo kapitana [behar dute], eta ez du honek ezpata beharrik.

-Buruzaria, lehenago esan dudan bezala, esku batetik bestera ezpatak aldairaturik jartzen denean, dantzarietara begira elkarrekin [igaro behar dute], erakutsi dudan modu berean, lau endanaetakok:

Zertan esanik ez dago: aldaerok baino errazago irakurtzen dira jatorrizko perpausak, aditza aurrerago daukate-eta.

Laugarren perpausean ere galdegaia aditz giblean dago. Frankok honela adieraziko lukete:

Buruzariak ezpata dantzariak ongi begiraturik [ipini behar ditu], bereizten dituela galairik egokienak bazter bietako endanaean ipintzeko, eta txiki eta maiskar aurkienak, erdiko bietarako.

Aditza gibelerago eroan dut, eta horrek dakar nekezago irakurtzea perpausa.

Jorra dezagun ondoko kontakizuna:

#### 8. BROKEL DANTZA

Brokel dantza [egin ohi dute] Gipuzkoako herri bikain aulkietan, lau edo bost urtetik beste hainbeste denboraren burura; (170. or.)

Perpau aztergai horretan ere ez zaio jaramonik egiten galdegaiaren legeari. Honen arabera honela beharko luke:

Brokel dantza Gipuzkoako herri bikain aurkietan [egin ohi dute], lau edo bost urtetik beste hainbeste denboraren burura;

Aditza gehiegi atzeratu da, eta horrek dakar aldaera hori nekeztxoago irakurtzea jatorrizko perpausa baino.

Ikus dezagun jarraiko kontakizuna:

#### 9. PORDON DANTZA

Pordon dantza [da] gipuzkoarrei gutzizko ohore handiak egiten dizkiguna. (174. or.)

Hor ere galdegaiaren legea hankaz gora geratzen da. Gaur egun gehienek honela emango lukete:

Pordon dantza gipuzkoarrei gutzizko ohore handiak egiten dizkiguna [da]

Sano nekagarria da, baina horrelakoz josita dago gaur eguneko euskara. Kenduz gero IZAN aditza eta erlatiboa, honela geratuko litzateke:

Pordon dantzak gipuzkoarrei gutzizko ohore handiak egiten dizkigu

Edo:

Pordon dantzak gutzizko ohore handiak egiten dizkigu gipuzkoarrei

Hel diezaiogun 10. kontakizunari:

#### 10. JORRAI DANTZA

Jorrai dantza [egiten da], herrietako pozaldia edo festak bukatu ondoan, (178. or.)

Hor ere ez da errespetatzen galdegaiaren legea, aditz ostean dago-eta galdegaia. Honela idatziko litzateke nagusiki gaur egun:

Jorrai dantza herrietako pozaldia edo festak bukatu ondoan [egiten da],

Aditza, zoritxarrez, lar atzera dago, eta horretxegatik irakurtzen da nekeztxoago jatorrizko perpausa baino.

Ora diezaiogun 11. kontakizunari:

#### 11. AZERI DANTZA

Azeri dantza honen izena txit oker [endelegatzen edo konprenitzen dute] gipuzkoar gehienek; (179. or.)



Hor galdegaia bere leku kanonikoan dago. Ezin hobeto dago, eta ez nuke hobeto emango. Txartoago bai, honela paratuz gero (subjektua aditz aurrera eroanda):

Azeri dantza honen izena gipuzkoar gehienek txit oker [endelegatzen edo konprenitzen dute];

Azter dezagun 12. kontakizuna:

## 12. BIZKAI DANTZA

Dantza mota hau [da] bizkaitarren berenkia, zeina egin ohi duten fandangoaren modura, (180. or.)

Hor ez da betetzen galdegaiaren legea. Lege dontsu hori errespetatuz gero honela geratuko litzateke:

Dantza mota hau bizkaitarren berenkia [da], zeina egin ohi duten fandangoaren modura,

Gurago dut jatorrizko perpausa. Bestalde, irakurlea, erreparatu erlatiboari: aditza eta beroni itsatsita doan menderagailua ez daude kokatuta azken lekuan:

Dantza mota hau bizkaitarren berenkia [da], zeina fandangoaren modura egin ohi duten,

“Zeinismo” bidezko erlatibo hori ez darabilgu gaur egun ahoz hegoaldean. Beraren ordeaz beste era bitara emango genuke perpausa:

-Dantza mota hau [da] bizkaitarren berenkia, ETA egin ohi dute fandangoaren modura,

-Dantza mota hau [da] bizkaitarren berenkia, egin ohi duteNA fandangoaren modura,

Jorra dezagun 13. kontakizuna:

## 13. SOINU ZAHARRAK

Bakar-bakarrik izen hau aditzea, [askoko dute] oraingo gazte berri zaleak, muxindurik jarrita, ixukatzeko soinu hain gogoangarriak. (181. or.)

Ez dakit egoki adierazi dudan zein den aditza eta zein galdegaia, baina perpausa ondo baino hobeto, nire ustez. Askotxok honela emango lukete perpausa:

Bakar-bakarrik izen hau aditzea, oraingo gazte berri zaleak, muxindurik jarrita, ixukatzeko soinu hain gogoangarriak [askoko dute]

Nekagarriaren nekagarria da. Subjektua soilik ipinita aditz aurrean askoz hobeto dago:

Bakar-bakarrik izen hau aditzea, oraingo gazte berri zaleak [askoko dute], muxindurik jarrita, ixukatzeko soinu hain gogoangarriak

Baina jatorrizkoa dago ondoen, bera dut nahien, guren. Beste ikuspegi batetik begiratuta perpausari, pentsa daiteke, beharbada, *dute* dela aditza eta *askoko* galdegaia. Hala balitz ere, ondo ere ondo daude sekuentziatuta jatorrizko perpausaren osagaiak.

Ondoren lau kontakizun aztertuko ditugu batera, egitura bera dute eta:

#### 14. KUARRENTAKO ERREGELA

Kuarrentako erregelak [ditu] 18 zatitan 213 puntu. (183. or.)

#### 15. SAN SEBASTIANEN IZENAREKIN DEITZEN DEN SOINU ZAHARRA

San Sebastianek [ditu] 17 zatitan 189 puntu edo konpas. (184. or.)

#### 16. GALANTAK

Galantek [dituzte] 9 zatitan 121 puntu. (185. or.)

#### 17. TXANTXAKAK

Txantxakak [dituzte] 20 zatitan 178 puntu edo konpas. (185. or.)

Lau kontakizunok UKAN dute aditza, eta eurotan galdegaia aditz atzean daude, eta laurotan ez dago aditzaren hurrengo lekuan, ezpabere, hurrengoaren hurrengoan, aditzetik bigarren lekuan. Gaur egun ondorengo era biotatik batean emango lukete idazle gehien-gehienek:

Kuarrentako erregelak 18 zatitan 213 puntu [ditu]. (183. or.)

San Sebastianek 17 zatitan 189 puntu edo konpas [ditu]. (184. or.)

Galantek 9 zatitan 121 puntu [dituzte]. (185. or.)

Txantxakak 20 zatitan 178 puntu edo konpas [dituzte], (185. or.)

Kuarrentako erregelak 213 puntu [ditu] 18 zatitan. (183. or.)

San Sebastianek 189 puntu edo konpas [ditu] 17 zatitan. (184. or.)

Galantek 121 puntu [dituzte] 9 zatitan. (185. or.)

Txantxakak 178 puntu edo konpas [dituzte] 20 zatitan, (185. or.)

Hurrengo kontakizunaren hasiera-perpaua ezezka dago, eta ez dut jorratuko.

#### 18. TXIRITONA

Txipiritonak zati bat baizik [ez du], eta hau 13 puntukoa. (192. or.)

Hurrengo kontakizunak atal asko ditu, eta orain artean legez, hasieran denak metatu eta gero banan-banan aztertu beharrean, hasieratik bertatik hasiko naiz banan-banan eman eta jorratzen:

#### 19. GIPUZKOAKO DANTZA MOTA GUZTIAK...

Dantzariak, dantzan hasi behar duen guztian, [behar ditu] oinak [ipini] modu honetan: (198. or.)

Hor ez da galdegaiaren legea errespetatzen, baina errespetatuz gero nekezago irakurriko litzateke:

Dantzariak, dantzan hasi behar duen guztian, oinak [ipini] modu honetan [behar ditu]:

**Muriska edo kabriola erdiak egiten dira honela:**

Oinak dantzan hasteko moduan dauzkala, [altxatu behar ditu] lurretik biak bat batean, (199. or.)

Perpau horretan ere ez dago galdegaia aditz aurrean, eta komeni ere ez, bestela itogarritxoago geratuko litzateke:

Oinak dantzan hasteko moduan dauzkala, lurretik biak bat batean [altxatu behar ditu],

**Lasterrak edo karrerak egiten dira modu honetan:**

Karrera bakoitzak [ditu] bost kolpe, gisa honetan: (199. or.)

Perpau horretan ere ez da betetzen galdegaiaren legea. Bete gura izanez gero honetara geratuko litzateke:

Karrera bakoitzak bost kolpe [ditu], gisa honetan:

**Lasterka gehiagotiak edo karrera añadituak egiten dira honela:**

Karrera gehiagotia edo añaditua egiteko lehendabizi [egin behar du] senziloa, esan dudana bezala, eta orduan añaditzen da, kabriola erdi, goien erakutsi ditudanarekin. (200. or.)

Perpau hori ez dago galdegaizaleen gogoko. Hauek honela paratzeko eskatuko lukete:

Karrera gehiagotia edo añaditua egiteko lehendabizi senziloa [egin behar du], esan dudana bezala, eta orduan añaditzen da, kabriola erdi, goien erakutsi ditudanarekin.

**Lan arinak edo kuarto peloak egiten dira honela:**

Eskuineko oina bakarrik altxatu eta, punta saihetsera begira duela, kanpoko aldera eraginik, beraren txonkatilako koskor kanpo aldekoarekin [ukitu behar dio] lurrean daukan ezkerrekoari kañara hezur erdikoan, eta ipini behar du lurrean ezkerrekoagandik arrada erdi batez apartarago, punta txit atzera, eta erpoa aurrera begira dituela. (201. or.)

Hor galdegaia ez dago aditz aitzinean. Bertan paratuz gero:

Eskuineko oina bakarrik altxatu eta, punta saihetsera begira duela, kanpoko aldera eraginik, beraren txonkatilako koskor kanpo aldekoarekin lurrean daukan ezkerrekoari [ukitu behar dio] kañara hezur erdikoan, eta ipini behar du lurrean ezkerrekoagandik arrada erdi batez apartarago, punta txit atzera, eta erpoa aurrera begira dituela.

### **Lau arin berriztuak edo kutro pelo redoblatuak egiten dira modu honetan:**

Eskuineko oina bakarrik altxatu eta punta zuzen-zuzen lurrera begira duela barrungo aldera eraginik, beraren txonkatilako kosko kanpo aldekoarekin, ezkerrekoaren kañara hezur erdikoa [jo], eta ipini behar du lurrean, erpo biak musuz musu elkarri ukitzen diotela. (202. or.)

Hor betetzen da galdegaizaleen apeta, baina ondoko perpausean galdegaia (*lurrean*), elementu bakarra, txikerra, aditz ostean dago (*ipini behar du*).

### **Muriska txingokoak edo ala de pitxonak egiten dira honela**

Eskuineko oina altxatuta puntaz behera begira atzerantz luzaturik daukala, [jo behar du] ezkerrekoarekin, azpian eta gero gainean kabriola egitean bezala, eta ipini behar du eskuinekoa bakarrik lurrean. (202. or.)

Perpau horretan galdegaia ez dago bere leku kanonikoan. Edozein modutan, galdegaia elementu bakarra eta txikerra delarik, ipiniz gero aditz aurrean, ez dago alderik jatorrizko perpausaren eta aldaeraren artean:

Eskuineko oina altxatuta puntaz behera begira atzerantz luzaturik daukala, ezkerrekoarekin [jo behar du], azpian eta gero gainean kabriola egitean bezala, eta ipini behar du eskuinekoa bakarrik lurrean.

### **Oin punta erpoikikoa edo zapateoa egiten da honela:**

Eskuineko oineko behatz handiarekin [jo behar du] lurra, erpoa ahal duen guztia goraturik, kanpo aldera begira daukala; berehala, erpo beraren ondoko eskinarekin jo behar du lurra, oin punta zuti-zuti kanpoko alderantz begira daukala; (203. or.)

Hor ere galdegaia, elementu bakarra eta txikitxo delat, aditz atzean dago. Gaur egun honela idatziko litzateke:

Eskuineko oineko behatz handiarekin lurra [jo behar du], erpoa ahal duen guztia goraturik, kanpo aldera begira daukala; berehala, erpo beraren ondoko eskinarekin jo behar du lurra, oin punta zuti-zuti kanpoko alderantz begira daukala;

### **Aurrerako txorrotxa egiten da modu honetan:**

Eskuineko oina altxatu eta puntaz behera txit aurrerantz luzaturik daukala, [jo behar du] ezkerrekoarekin aurrea azpian, eta gero gainean; eta eskuinekoa lurrean ipintzearekin batean, harrotu behar du ezkerrekoa ahal duen guztia aurrerantz, pizkortasun handiarekin. (203. or.)

Hor ere galdegaia elementu bakarrez dago osatuta, eta aditz gibelean dago. Gehienek honela adieraziko lukete perpausa:

Eskuineko oina altxatu eta puntaz behera txit aurrerantz luzaturik daukala, ezkerrekoarekin [jo behar du] aurrea azpian, eta gero gainean; eta eskuinekoa lurrean ipintzearekin batean, harrotu behar du ezkerrekoa ahal duen guztia aurrerantz, pizkortasun handiarekin.

### **Atzerako kabriola egiten da honela:**

Aurrerako txorrotxa bukatu bezain laster ezkerreko oina altxatuta atzerantz txit luzaturik airean daukala, [jo behar du] eskuinekoarekin aurrea gainean eta gero

azpian, eta ezkerrekoa lurrean ipintzearekin batea, luzatu behar du eskuikoa atzerantz ahal duen guztia aire handiarekin. (203. or.)

Perpau horretan ere galdegaia (elementu bakarrez osatuta) aditz ostean dago, askoren erremuskadagarri. Galdegaia aditz aurrean erabili zileek honela emango lukete perpausa:

Aurrerako txorrotxa bukatu bezain laster ezkerreko oina altxatuta atzerantz txit luzaturik airean daukala, eskuinekoarekin [jo behar du] aurrea ganean eta gero azpian, eta ezkerrekoa lurrean ipintzearekin batea, luzatu behar du eskuikoa atzerantz ahal duen guztia aire handiarekin.

**Zeharrerako muriska edo kabriola eskuineko alderakoa, egiten da honela:**

Zeharka edo saiheska [egin behar du] kabriola eskuineko aldera, aurrerako txorrotxa egiten duen gisa berberean, oin biak eskuinerantz txit luzaturik, eta gorputza ezkererantz makurtzen duela. (204. or.)

Hor ere galdegaia aditz ostean dago, baina ez lehenengo kokagunean, ezpabere, bigarrean. Galdegaia ipiniz gero leku kanonikoan, honetara geratuko litzateke (nekagarriago irakurtzeko):

Zeharka edo saiheska kabriola eskuineko aldera [egin behar du], aurrerako txorrotxa egiten duen gisa berberean, oin biak eskuinerantz txit luzaturik, eta gorputza ezkererantz makurtzen duela.

**Zeharkako kabriola ezkerreko aldera egiten da modu honetan:**

Atzerako muriska edo kabriola egiten duen bezala [behar du egin] ezkerreko aldera saiheskarakoa, oin biak ahal duen guztia ezkererantz luzaturik eta gorputza eskuinerantz makurturik. (204. or.)

Hor ere galdegaia ez dago aditz aurrean, ezta aditzaren osteko lehenengo kokalekuan ere, ezpabere, bigarrean. Galdegaia eroan izanez gero bere leku kanonikora, perpausa nekeztxoago irakurriko litzateke:

Atzerako muriska edo kabriola egiten duen bezala ezkerreko aldera saiheskarakoa, [behar du egin] oin biak ahal duen guztia ezkererantz luzaturik eta gorputza eskuinerantz makurturik.

**Jira galdua edo buelta perdida egiten da honela:**

Eskuineko oina lurretik kana erdi batean goraturik, aurrerantz txit luzatu eta puntaz behera begira airean daukala, ezkerrekoa [igaro behar dio] eskuinekoaren gainetik, eta jo behar du lurra ezkerrekoarekin bakarrik, eskuinekoa airean daukala, eta gero eratsiko du berehala eskuinekoa ere lurrera. (204. or.)

Perpau horretan ere hankaz gora geratzen da galdegaiaren legea. Honela emango lukete askotxok:

Eskuineko oina lurretik kana erdi batean goraturik, aurrerantz txit luzatu eta puntaz behera begira airean daukala, ezkerrekoa eskuinekoaren gainetik [igaro behar dio], eta jo behar du lurra ezkerrekoarekin bakarrik, eskuinekoa airean daukala, eta gero eratsiko du berehala eskuinekoa ere lurrera.

**Erakutsi ditudan aldaira horiek, noiz, nola, eta zenbat egin behar diren irakastea.**

Lehenago ere esanik daukadan bezala, dantzaren hasierako soinuak, andreen deiakoak, eta zortzikoak, guztiak [dira] zortzina puntukoak, zeinetatik datorren zortzikoaren izen egiazko, zuzen, egokia. (205. or.)

Hor galdegaizaleen pozgarri, galdegaia aditz aurrean dago. Nik neuk ere ez daukat ezer kontrakorik, bikain dago, zeren eta, galdegaiaren legea betetzen badu ere, aditza oso aurrera baitarabil, bigarren kokalekuan.

Jarraiko kontakizunak sei atal ditu, eta, honenbestez, zazpi hasiera-perpauk ditugu azterkizun. Denek dute estruktura bat bera: aditza UKAN eta galdegaia aditz gibelean. Hona hemen:

**20. DANTZAREN HASIERAKO SOINUA NOLA DANTZATU...**

Dantzari onak, dantzan hasten den toki guztietan, [behar ditu dantzatu] zortzi puntuak: (207. or.)

**Senziloa egiten da honela:**

Lehendabiziko puntu edo konpasean, [egin behar ditu] oin biek lau mugida edo golpe, modu honetan:

**Beste aldaira bat:**

Lehendabiziko sei konpasetan [egin behar ditu], lau kuarto pelo senzilo, eta lau karrera senzilo, modu honetan: (209. or.)

**Beste aldaira bat:**

Lehendabiziko sei konpasetan [egin behar ditu] sei karrera senzilo, bakoitza zapateo banarekin, modu honetan: (209. or.)

**Beste aldaira bat:**

Lehendabiziko sei konpasetan [egin behar ditu] lau kuarto pelo redoblatu, eta bi karrera añaditu gisa honetan: (210. or.)

**Beste aldaira bat:**

Lehendabiziko sei konpasetan [egin behar ditu] lau karrera añaditu, eta lau kabriola zuzenekoak, modu honetan: (210. or.)

**Beste aldaira bat:**

Lehendabiziko sei konpasetan, [egin behar ditu] sei karrera añaditu, modu honetan: (211. or.)

**Beste aldaira bat:**

Lehendabiziko sei konpasetan [egin behar ditu] lau jira galdu edo buelta perdidu eta lau karrera senzilo, modu honetan: (213. or.)

Ipiniz gero perpausok errespetatzen dutela galdegaiaren legea, honetara geratuko lirateke:

Dantzari onak, dantzan hasten den toki guztietan, zortzi puntuak [behar ditu dantzatu]:

Lehendabiziko puntu edo konpasean, oin biek lau mugida edo golpe [egin behar ditu], modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan lau kuartro pelo senzilo [egin behar ditu], eta lau karrera senzilo, modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan sei karrera senzilo [egin behar ditu], bakoitza zapateo banarekin, modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan lau kuartro pelo redoblatu [egin behar ditu], eta bi karrera añaaditu gisa honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan lau karrera añaaditu [egin behar ditu], eta lau kabriola zuzenekoak, modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan, sei karrera añaaditu [egin behar ditu], modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan lau jira galdu edo buelta perdida [egin behar ditu] eta lau karrera senzilo, modu honetan:

Aldaerok gaiztxoago, zailtxoago, irakurtzen dira jatorrizko perpausak baino, aditza atzerago dute-eta, baina ez dago hainbesteko alderik. Okerrago litzateke inork eman ez gero 3., 5., 6. eta azken perpausa honetara:

Lehendabiziko sei konpasetan lau kuartro pelo senzilo, eta lau karrera senzilo [egin behar ditu], modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan lau kuartro pelo redoblatu, eta bi karrera añaaditu [egin behar ditu] gisa honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan lau karrera añaaditu, eta lau kabriola zuzenekoak [egin behar ditu], modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan lau jira galdu edo buelta perdida eta lau karrera senzilo [egin behar ditu], modu honetan:

Perpausok, horrela sekuentziatuta, itogarriak dira irakurtzeko; eta, hortaz, ez dira gomendagarriak. Jatorrizkoak eurak daude ondoen, eurak ditut gogokoen.

Ikus dezagun hurrengo kontakizuna:

## 21. ZORTZIKOAK NOLA DANTZATU ...

Dantzaren hasierako erakutsi duduan moduan [dantzatzen da] zortzikoetan ere senziloa, (216. or.)

### **Beste aldaera bat senziloa bezain lasaia edo geldia:**

[Egin behar ditu] lehendabiziko sei konpasetan bi karrera senzilo, eta bi kuartro pelo senzilo, modu honetan: (216. or.)

## Beste aldaira bat lan gehiagokoa

[Egin behar ditu] lehendabiziko sei konpasetan, bi kuarto pelo redoblatu, eta bi kabriola jira osokoak, modu honetan:

Hirurotariko perpaus batean ere ez da betetzen galdegaiaren legea. Hona hemen zelan idatziko lituzketen galdegaizaleek:

Dantzaren hasierako erakutsi dudan moduan zortzikoetan ere senziloa [dantzatzen da],

Lehendabiziko sei konpasetan bi karrera senzilo [egin behar ditu], eta bi kuarto pelo senzilo, modu honetan:

Lehendabiziko sei konpasetan, bi kuarto pelo redoblatu [egin behar ditu], eta bi kabriola jira osokoak, modu honetan:

Zertan esanik ez dago aldaerok nekeztxoago irakurtzen direla jatorrizko perpausak baino, eta horren arrazoa aditzaren kokagunean dago: atzerago dago hiru aldaerotan jatorrizkoetan baino.

Pasa gaitezen hurrengo kontakizunera:

### 22. PILOTARIAK

Munduko dierria edo nazio guztien artean, [ez da agertu] joko mota honetan euskaldunari alderatu zaionik. Orain delarik 68 urte, gutxi gorabehera, lau gipuzkoar [joan izan ziren] lehendanaz partida eginik, Cartagenara pilotan jokatzera, Espainia guztian aurki ahal zitezkeen beste lau onenen kontra; baita aisa aski irabazirik etorri ere. (241. or.)

Hasiera-perpaua ezezka dagoenez, hurrengoari oratuko diot. Hemen ez da errespetatzen galdegaiaren legea, galdegaia aditz ostean baitago. Ipiniz gero galdegaia bere leku kanonikoan:

Munduko dierria edo nazio guztien artean, [ez da agertu] joko mota honetan euskaldunari alderatu zaionik. Orain delarik 68 urte, gutxi gorabehera, lau gipuzkoar lehendanaz partida eginik, Cartagenara pilotan jokatzera [joan izan ziren] Espainia guztian aurki ahal zitezkeen beste lau onenen kontra; baita aisa aski irabazirik etorri ere.

Edo:

Munduko dierria edo nazio guztien artean, [ez da agertu] joko mota honetan euskaldunari alderatu zaionik. Orain delarik 68 urte, gutxi gorabehera, lau gipuzkoar Cartagenara pilotan jokatzera [joan izan ziren] lehendanaz partida eginik, Espainia guztian aurki ahal zitezkeen beste lau onenen kontra; baita aisa aski irabazirik etorri ere.

Igaro gaitezen ondorengo kontakizunera:

### 23. HITZ NEURTULARI EDO BERTSOLARIEN JOSTAKETA

Gipuzkoarrek, denbora guztietan eta beti [izan dute], hitz neurtuak supituan eta ongi kantatzeko eresia eta jakinduria handia. (247. or.)



Perpau hori Altuberen jarraitzaileek gogoko dute; baita neuk ere. Izan ere, galdegaia leku kanonikoan dauka, baina aditza ere oso aurrera. Bestela esateko, ez dago honela emanda:

Gipuzkoarrek, hitz neurtuak supituan eta ongi kantatzeko eresia eta jakinduria handia denbora guztietan eta beti [izan dute].

Altuberen legea betetzen bada ere, arazo testual bi dauzka:

1. Aditza atzen lekuan dago, perpausa lar luzea dela.
2. Subjektuaren eta aditzaren arteko tartea lar handia da.

Frogatu nahian ari banaiz ere galdegaiaren legea ez dela betetzen (gehiene-tan), horrelako perpausak —galdegaiaren legea bete eta aditza sano aurrera— gogoko ditut. Beraz, Altuberen legea baliagarria da askotan. Nik neuk ere sarri betetzen dut haren legea, baina itsutu barik, eta erabili barik noiz gura eta non gura.

Alda gaitezen ondoko kontakizunera:

#### 24. IDI APUSTUAK

Gutzizko eresia [dute] gipuzkoarrek idi tema horietara. (261. or.)

Gustu-gustuko perpausa dut hori, hiru arrazoiengatik izan ere:

1. Betetzen du Altuberen legea.
2. Aditza bigarren kokalekuan dago, hau da, aurrera-aurrera.
3. Ezin errazago irakurtzen da.

Perpau bikain hori honela lorrinduko genuke:

Gipuzkoarrek idi tema horietara gutzizko eresia [dute]

Edo:

Idi tema horietara gipuzkoarrek gutzizko eresia [dute]

Bada tarteko bide bat ere:

Gipuzkoarrek gutzizko eresia [dute] idi tema horietara

Jorra dezagun hurrengo kontakizuna:

#### 25. AHARI APUSTUAK

Ahari temetara ere, gutziz itsutuak eta txit etzanak [dira] gipuzkoarrek; (262. or.)

Galdegaiaren legea errespetatzen du eta erraz irakurtzen da, aditza aurrera samar du eta. Baina uste dut honela errazago:

Gipuzkoarrek gutziz itsutuak eta txit etzanak [dira] ahari temetara ere;

Edo:

Gipuzkoarrak [dira] gutziz itsutuak eta txit etzanak ahari temetara ere;

Jorra dezagun ondorengo kontakizuna:

26. MAKILLURRULARIEKIN, SALTALARI ETA TXINGOLARIAK

Artzainak [dira] txit eresituak hiru jostaketa horietara. (262. or.)

Hor ez da betetzen galdegaiaren legea. Perpaus horrek aurrekoaren antz handia dauka, eta honetara ere —beteta galdegaiaren legea— eman zezakeen:

Artzainak txit eresituak [dira] hiru jostaketa horietara.

Edo:

Hiru jostaketa horietara txit eresituak [dira] artzainak.

Azkeneko adibide biok antzekoak dira, baina Iztuetak ez ditu era bakarrean eman, batean galdegaiaren legea beteta eman baitu eta bestean ez, baina bietan aditza aurrera dagoela. Baina ez zaio bururatu ematea gaur egun nagusiki erabiltzen den molde bakarrean, trokelean:

Gipuzkoarrak ahari temetara ere gutziz itsutuak eta txit etzanak [dira];

Artzainak hiru jostaketa horietara txit eresituak [dira]

Azter dezagun azkenaurreko kontakizuna:

27. MAKILKARIAK

Gipuzkoan beti [izan dira] makilkari azkarrak, (263. or.)

Perpaus hori denok-edo dugu gogoko, neu barruan naizela. Izan ere, galdegaiaren legea beteaz gain, aditza aurre-aurrera dauka, bigarren kokalekuan. Eta, horrenbestez, erraz-erraz irakurtzen da. Beste edozein operaziok bihurritu egingo luke, eta utz dezagun bakean.

Ora diezaiogun azken kontakizunari:

28. PALAKARIAK

Gipuzkoan [ezagutu ditut] nik palankari gain-gainekoak. (264. or.)

Ez da betetzen galdegaiaren legea; hala ere, edo, hobeto esateko, horretxegatik irakurtzen da erraz ere erraz. Ez dezagun para galdegaia ohiko leku kanonikoan.

## 2. Ondorioak

Datuok irakurrita, hona hemen ondorioak:

1. Oratuz soilik helburu nagusiari, azterturiko zenbat hasiera-perpausek hausten duten Altuberaren legea, 57 perpaus jorratu ditut, eta eurotan (kenduta 2, ezezka baitaude) 45ek hausten dute legea, eta 10ek ez, hau da,

%80an hausten da galdegaiaren legea. Datuok eskuetan, Iztuetak txiki-txiki egiten du galdegaiaren legea, baina bat dator Bittor Hidalgok emaniko datuekin.

2. Galdegaia, aditz aurrean dagoenean, laburra da; aditz atzean dagoenean, luzea zein laburra, baita elementu bakarrekoa ere.
3. Egileak, galdegaia aditz aurrean zein atzean dagoela, beti darabil aditza aurre-aurrera.
4. Nik uste, Iztuetaren liburu honetan, narrazioetako hasiera-perpausetako datuak zabal daitezke narrazio osoetara.
5. Gogoetatzat komeni da esatea zergatik ez dugun idazten Iztuetak liburu honetan eta beste idazle batzuek bezain erraz: aditza ahalik aurreren eta galdegaiarekin obsesionatu barik beti joan behar dela aditz gibelean.

## **Bibliografia**

Hidalgo, V. (2002): "Hitzen ordena esaldian", *Senez*, **25**.

Iztueta, J. I. (1990): *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, EEE, Oartzun.